

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Osasun Departamentuak 20.000 euro bideratu ditu ikasleak bihotz-biriketako bizkortze-maniobretan trebatzeko

Departamentuak hitzarmena sinatu du "ABC que salva vidas" elkartearekin entrenatzeko 275 panpinaren erosketarako

Ostirala, 2018.eko abuztuak 31

Osasun Departamentuak 20.000 euroko dirulaguntza eman dio "El ABC que salva vidas" elkarteari bihotz-biriketako bizkortze-maniobretan trebatzeko 275 panpinaren erosketarako. Panpinak ikastetxeetako irakasleak era horretako jardunetan prestatzeko erabiliko dira, gerora ikasleen prestatzaile gisa jarduteko aukera izan dezaten.



Hitzarmenaren sinaketako une bat.

Horretarako, berrikitan, bi erakundeek hitzarmena sinatu dute Osasuneko zuzendari nagusi Luis Gabilondo eta elkarteko lehendakari Clint Jean Louis Fernándezen eskutik. Agiriaren arabera, elkarteak eskola-komunitateari bizia arriskuan den egoeretan nola jokatu irakasteko 2018an abiarazitako eskola-programara bideratuko da dirulaguntza, eta zehazkiago esanda, bizkortze ariketak egiteko Practiman heldu ereduko 263 panpina eta Little Anne QCPR heldu ereduko beste 12 panpina erosteko erabiliko da.

Horren harira gogoratu behar da 2017an elkarteak dirulaguntza bat jaso zuela 60 ikastetxerentzako 300 panpina eta irakasleei laguntzeko zentroetarako nahiz elkarterako beste material batzuk erosteko. Aipatutako 275 panpina berrien erosketaz, Nafarroako irakasle guztiak prestatu ahalko direla aurreikusi da.

800 irakasle eta 50.000 ikasle inguru prestatuta 2011z geroztik

"El ABC que salva vidas" delakoa irabazi-asmorik gabeko elkarte da, biziraupen-katearen eta Oinarritzko Bizi-Euskarriaren (OBE) ezagutza Foru Komunitate osora zabaltzea xede duena, bat-bateko bihotz heriotzaren ondoko biziraupena hobetzeko asmoz.

Elkarteak 2010ean sortu zuten Osasunbideko eta Nafarroako Suhiltzaileetako profesionalek, gizartean zegoen bizi-euskarriko teknikei buruzko ezagutza murrizari eta biziraupen-tasa txikiei aurre egiteko

beharrak bultzatuta. Horretarako, komunitate proiektu globala diseinatu zen, eskola-komunitatea, lehen esku-hartzaileak (polizia), herriak eta hiriak eta herritarrak barne hartuz.

Larrialdi zerbitzuen erantzun azkarrean oinarritutako komunitate-programak eta herritarrei bihotz-biriketako bizkortze-eraketak irakastea oso eraginkorrak suertatu dira pazienteen biziraupena areagotzeko. Bat-bateko heriotza ospitaletik kanpo gertatzen da gehienetan, kasuen % 60-80 etxean gertatzen dira, eta maitasun handiz adingabeen aurrean. Ondorioz, beharrezkotzat jo da herritarren belaunaldi berriei bizi-larrialdi honi aurre egiteko prestakuntza ematea. Bihotz-biriketako bizkortze teknikak garrantzi handikoak dira, halaber, itotzeak, eztarriko trabamenduak eta elektrokuzioak gertatzen direnean.

Eskola-programak bi helburu ditu: lehenengoa, irakasleak BBB teknikan eta desfibrilagailuaren erabileran prestatu eta trebatzea, gerora prestakuntza hori eskola-komunitate osora zabaltzeko asmoz. Irakasleei zuzendutako prestakuntza hau irakasleei laguntzeko zentroyen bitartez (Iruñea, Lizarra, Tuteria, Tafalla eta Lekarozko ILZak) egiten ari da, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Osasun departamentuen lankidetzaz. Irakasleak gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez landutako material didaktikoez baliatu daitezke, eta horrekin batera, simulazioak egiteko panpinak erabili ditzakete. Programa honi esker, 110 ikastetxek panpina propioak dituzte dagoeneko, eta ikastetxe guzti-guztiek maileguan eskura ditzakete ILZetan ikasgeletara eramateko. 2011z geroztik, 800 irakasle baino gehiago prestatu dira, eta hauen bitartez, beste 50.000 pertsona baino gehiago trebatu dira, gehienak ikasleak.

Nafarroako ikastetxeak panpinez hornitu eta eskola-komunitatean (irakasleak, ikasleak, pertsonala eta gurasoak barne hartuta) BBB teknikan trebatzeko aukera eskaini eta zabaltzea da egun aurrera eramaten ari den strategiaren muina.

2016an, Bizkortzearen Europako Kontseiluak eredu iraunkortzat jo zuen elkartearen eskola-programa, konortea galduta dagoen pertsona baten aurrean jokatze modua, 112 telefonoaren bitartez larrialdi zerbitzuei garaiz hots egiteko beharra eta bizia salba dezaketen bihotz-biriketako bizkortze-teknikak aplikatzeari buruzko ezaqutza komunitatean zabaltzen laqundu duen heinean.